**Kirol Zerbitzua**

Albisteak

# Zure eta munduaren osasunaren alde, desplazatu gaitezen era jasangarrian!

2017/10/04




Iazko mugikortasun astean Mondragon Unibertsitateko ikasle eta langileek gometxekin egindako ariketan atera genituen emaitzak medio, ikusi genuen **gehienok 10 kilometro baino ibilbide luzeagoa egiten dugula campusera gerturatzeko**.

Horregatik, Kirol Zerbitzuak ikasle eta langileen mugikortasun jasangarria bultzatzerako orduan, pauso bat gehiago eman gura du, eta **bizikletaren erabilera bultzatzeaz gain** erraztasunak eman nahi ditu gure **ikasle eta langileek autoak parteka ditzaten.** Horretarako, hobekuntza bat daukagu Kirol Zerbitzuan: **HUHEZI Eskoriatzako hainbat parking-etan preferentzia izango dute elkarbanatutako autoek!**

Animatu era jasangarrian mugitzen eta autoa partekatzen!